



ERRETERIA UDALA

Trafiko, Garraioa, Hirit.Babesa eta Babes Zibila / Tráfico, Transportes, Protecc.Ciudadana y Civil

Expediente zk./Nº expediente: 2023ZUAO0003

Gaia/Asunto: GGLA_Bidaiarien errepide bidezko garraio-zerbitzu publiko erregularrak harmonizatzeko Erregelamenduaren aldaketa puntuala ATTG_ Modif. puntual del Reglamto de armonización de los servic. públicos regulares de transporte de viajeros por carretera

Eskatzailea/Solicitante: ERRETERIAKO UDALA

NAN(IFK)/DNI(NIF): P2007200E

Kokalekua/Emplazamiento: ERRETERIA

Udalbatzarrak, 2023ko irailaren 26ko ohiko batzarrean, bestek beste, akordio hau hartu zuen, betiere akta onartzerakoan sor litezkeen aldaketen baitan:

El Pleno de la Corporación en sesión ordinaria de fecha 26 de septiembre de 2023 adoptó, entre otros, a reserva de los términos que resulten de la aprobación del acta correspondiente, el siguiente acuerdo:

AKORDIOA

ACUERDO

5. Proposamena: Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzaren barruan dauden Gipuzkoako administrazioen eremuan bidaiarien errepide bidezko garraio-zerbitzu publiko erregularrak harmonizatzeko erregelamenduaren aldaketa puntualaren hasierako onarpena.

5. Propuesta: Aprobación inicial de la Modificación puntual del Reglamento de armonización de los servicios públicos regulares de transporte de personas viajeras por carretera en el ámbito de las Administraciones guipuzcoanas integradas en la Autoridad Territorial del Transporte de Gipuzkoa.

(2023ZUAO0003)

(2023ZUAO0003)

Doako laguntzailearen ekintza positiboa desgaitasunen bat, nolabaiteko disfuncio kognitiboa, fisiko edo intelektuala dutenen beste kolektibo batzuetara zabaltzea, horretarako mendekotasunaren balorazioan ezarritako baremoak erabiliz.

Ampliación de la acción positiva del acompañante gratuito a otros colectivos de personas con discapacidad, algún tipo de disfunción cognitiva, física o intelectual, utilizando para ello los baremos establecidos en la valoración de dependencia.

AURREKARIAK

ANTECEDENTES

Berriki Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzak Errenteriako eta gainerako udalei proposatu die Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzaren barruan dauden Gipuzkoako Administrazioen eremuan bidaiarien errepide bidezko garraio-zerbitzu publiko erregularrak harmonizatzeko Erregelamenduaren aldaketa puntuala.

Recientemente la Autoridad Territorial de Transportes de Gipuzkoa ha propuesto al ayuntamiento de Errenteria al igual que al resto de ayuntamientos una modificación puntual del Reglamento de armonización de los servicios públicos regulares de transporte de personas viajeras por carretera en el ámbito de las Administraciones guipuzcoanas integradas en la Autoridad Territorial del Transporte de Gipuzkoa.

Araudi hori aldatzeko aurreikuspena ez zegoen aurreikusita Errenteriako Udalean indarrean dagoen Arau Planean, eta, beraz, alde zurretik, beharrezkoa zen Plan hori aldatzea.

La previsión de modificación de dicho reglamento no estaba prevista en el Plan Normativo vigente en el ayuntamiento de Errenteria y por lo tanto, con carácter previo, era necesario modificar dicho Plan.



ERRETERIA UDALA

Trafiko, Garraioa, Hirit.Babesa eta Babes Zibila / Tráfico, Transportes, Protecc.Ciudadana y Civil

2023ko abuztuaren 17ko Tokiko Gobernu Batzarrak 2020-2023 Arau Planaren 5. aldaketa onartu zuen.

Goiburuan aipatutako harmonizazio-erregelamenduen jatorria eta oinarria 2013ko martxoaren 4an Gipuzkoako Lurralde Historikoko garraio publiko kolektiboan tarifak integratzeko sistema ezartzeko lankidetzaren hitzarmenak dira, Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzari atxikitutako erakundeek sinatutakoak.

Horren helburua: Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzaren barruan dauden Gipuzkoako administrazio publikoen titulartasuneko erabilera orokorreko errepideko bidaiarien garraio erregularreko zerbitzu publikoa modu bateratu eta homogeneoan arautzea. Eta aplikazio-eremua, erabiltzen dituzten pertsonak eta garraio publikoaren zerbitzua ematen duten operadoreak.

Kontuan izan beharreko zehaztapenak:

Gipuzkoako gizartearen eta MUGI sistemaren beraren bilakaerak eta bilakaera horren ondorioz sortzen ari diren premiek beharrezkoa egiten dute bidaiarien errepideko garraio-zerbitzu publiko erregularrak harmonizatzeko erregelamendua egokitzea.

Onespenaren beharra eta egokitasuna.

Aipatutako erregelamendua egokitzea eta eguneratzea pertsonen irisgarritasuna eta mugikortasuna bermatzeko, eta, horrela, pertsona guztiak, eta bereziki mugikortasun murriztua, komunikatzeko zailtasuna edo bestelako muga psikiko edo sensoriala dutenek, aldi baterako edo behin betiko izan, garraio-zerbitzua erabili eta gozatu ahal izango dutela bermatzeko.

Irisgarritasuna funtsezko eta ezinbesteko elementua da desgaitasuna eta mendekotasuna duten

La Junta de Gobierno Local en sesión extraordinaria de fecha 17 de agosto de 2023 aprobó la 5ª modificación del Plan Normativo 2020-2023.

El Reglamento de armonización referido en el encabezamiento encuentra su origen y fundamento en los convenios de colaboración para la implantación del Sistema de Integración Tarifaria en el transporte público colectivo del Territorio Histórico de Gipuzkoa en 4 de marzo de 2013, suscritos por las entidades consorciadas a la Autoridad Territorial del Transporte de Gipuzkoa.

Su objeto, regular de forma unitaria y homogénea la prestación del servicio público de transporte regular de personas viajeras por carretera de uso general titularidad de las Administraciones Públicas guipuzcoanas integradas en la Autoridad Territorial del Transporte de Gipuzkoa. Y su ámbito de aplicación, las personas que utilicen y los operadores que presten el servicio de transporte público.

Aspectos a considerar:

La evolución de la sociedad Guipuzcoana y del propio sistema MUGI y las necesidades que van surgiendo de dicha evolución, hacen necesario adecuar el Reglamento de armonización de los servicios públicos regulares de transporte de viajeros por carretera

Necesidad e idoneidad de la aprobación

Adecuar y actualizar el reglamento arriba mencionado para garantizar la accesibilidad y la movilidad de las personas, garantizando, así, el uso y disfrute del servicio de transporte de forma autónoma por todas las personas y en particular por aquellas con movilidad reducida, dificultades de comunicación o cualquier otra limitación psíquica o sensorial de carácter temporal o permanente.

La accesibilidad se configura como elemento clave e indispensable para la plena efectividad de los



ERRETERIA UDALA

Trafiko, Garraioa, Hirit.Babesa eta Babes Zibila / Tráfico, Transportes, Protecc.Ciudadana y Civil

pertsonen eskubideak erabat eraginkorrak izan daitezen.

Arauren helburuak.

Egungo araudia egokitzea, Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politiketako Departamentuak emandako mendekotasun-txartela duten pertsonen laguntzaileek doan bidaiatu dezaten Mugi txartelarekin ordaintzen/balioztatzen dutenean.

2023ko abuztuaren 28an, Errenteriako udaltzainburuak "Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzaren barruan dauden Gipuzkoako administrazioen eremuan bidaiarien errepide bidezko garraio-zerbitzu publiko erregularrak harmonizatzeko erregelamenduaren aldaketa puntuala"-ren aldeko txosten teknikoa eman du.

Aholkulari juridikoak 2023ko abuztuaren 31an aldeko txostena eman du, eta Idazkari Orokorrak oniritzia eman dio.

2023ko irailaren 19an, alkateak proposatuta, Lurraldea Batzordeak gai honen aldeko irizpena eman zuen.

Alkateak egindako erabaki-proposamena eta Aholkulari Juridikoak espedientean jasotako akordio-proposamenari emandako adostasuna ikusita.

Udalbatzarrak, aho batez, aldeko 21 botorekin (ORERETA/ ERRETERIAKO EH BILDU, Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak, EAJ-PNV, ELKARREKIN ERRETERIA Podemos, Ezker Anitza-IU, Alianza Verde eta PP ERRETERIA),

ERABAKI DU

1.- Espedientean jasotako "Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzaren barruan dauden Gipuzkoako administrazioen eremuan bidaiarien errepide bidezko garraio-zerbitzu publiko erregularrak harmonizatzeko

derechos de las personas con discapacidad y dependencia".

Objetivos de la norma:

Adecuar el reglamento actual para que las personas acompañantes de las personas con tarjeta de dependencia emitida por el Departamento de Políticas Sociales de la Diputación Foral de Gipuzkoa viajen gratuitamente cuando paguen/validen con la tarjeta Mugi.

El oficial jefe de Policía local de Errenteria con fecha 28 de agosto de 2023 ha emitido informe técnico favorable a la "Modificación puntual del Reglamento de armonización de los servicios públicos regulares de transporte de personas viajeras por carretera en el ámbito de las Administraciones guipuzcoanas integradas en la Autoridad Territorial del Transporte de Gipuzkoa,

La asesora jurídica con fecha 31 de agosto de 2023 ha emitido informe favorable, con la conformidad de la Secretaria General.

Visto que en fecha 19 de septiembre de 2023, a propuesta de la Alcaldesa, la Comisión de Territorio dictamina favorablemente el presente asunto.

Vista la propuesta de acuerdo de la Alcaldesa y la conformidad dada por la Asesora Jurídica a la propuesta de acuerdo que consta en el expediente.

El Pleno de la Corporación, por unanimidad, con 21 votos a favor (ORERETA/ ERRETERIAKO EH BILDU, Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak, EAJ-PNV, ELKARREKIN ERRETERIA Podemos, Ezker Anitza-IU, Alianza Verde y PP ERRETERIA),

ACUERDA

1.- Aprobar inicialmente la "Modificación puntual del Reglamento de armonización de los servicios públicos regulares de transporte de personas viajeras por carretera en el ámbito de las



ERRETERIA UDALA

Trafiko, Garraioa, Hirit.Babesa eta Babes Zibila / Tráfico, Transportes, Protecc.Ciudadana y Civil

erregelamenduaren aldaketa puntuala” araudiari hasierako onarpena ematea.

2.- Jendaurreko informazioa eta interesdunei audientzia aldia irekitzea, 30 laneguneko epez, erreklamazioak edota iradokizunak aurkezteko. Audientzia-aldia iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, udal iragarki taulan eta Udaleko web gunean argitaratuz egingo da.

Inolako erreklamaziorik edo iradokizunik aurkeztu ezean, ordura arteko behin-behineko akordioa behin betikoz onartutzat hartuko da.

DEKRETUA.- Aurreko erabaki honetan agintzen dena beteko da.

Errenteria Udaleko alkate-lehendakariak agindu eta sinatzen du. Ziurtatzen dut.

Errenterian, sinaduran agertzen den datan

Alkate-lehendakaria

Aizpea Otaegi Mitxelena

DILIGENTZIA.- Data honetan agindutakoa betetzen da, ziurtatzen dut.

Administraciones guipuzcoanas integradas en la Autoridad Territorial del Transporte de Gipuzkoa ”, que consta en el expediente.

2.- Someter a información pública y periodo de audiencia a las personas interesadas por un plazo de 30 días para presentar reclamaciones o sugerencias mediante su publicación en el Boletín Oficial de Gipuzkoa, en el tablón de anuncios y en la página web municipal.

En caso de que no se presentaran reclamaciones o sugerencias el acuerdo inicial devendrá definitivo.

DECRETO.- Se dará cumplimiento de cuanto ordena el acuerdo anterior.

Lo manda y firma la alcaldesa-presidenta del Ayuntamiento de Errentería. Certifico.

Errenteria, en la fecha de la firma

Idazkari orokorra / Secretaria general

Nagore Sarasola Otermin

DILIGENCIA.- Con esta fecha se cumple lo ordenado, certifico.

Idazkari orokorra / Secretaria general

Nagore Sarasola Otermin



ERRETERIA UDALA

Trafiko, Garraioa, Hirit.Babesa eta Babes Zibila / Tráfico, Transportes, Protecc.Ciudadana y Civil

ERANSKINA / ANEXO

Erreglamenduaren aldaketaren proposamena:

LEHENENGOA: Zioen azalpena. V. ataleko 2. eta 4. paragrafoetan “mendekotasuna” gehitzea, 3. or.

“Ildo horretan, erreglamenduan xedatzen da garraio-zerbitzu publikoaren titularrak diren administrazioek eskura dituzten tresna guztiak erabili behar dituztela pertsonen irisgarritasuna eta mugikortasuna bermatzeko, eta, horrela, pertsona guztiek, eta bereziki mugikortasun murriztua, komunikatzeko zailtasuna edo bestelako muga psikiko edo sentsoriala dutenek, aldi baterako edo behin betiko izan, garraio-zerbitzua erabili eta gozatu ahal izango dutela bermatzeko. Irisgarritasuna funtsezko eta ezinbesteko elementua da desgaitasuna eta mendekotasuna duten pertsonen eskubideak erabat eraginkorrak izan daitezen.

8. artikuluan, erabiltzaileen bizitzan norberaren egoera iraunkorraren edo behin-behinekoaren arabera mugikortasun murriztuko pertsonatzat hartzen diren pertsona multzoen zerrenda bat jaso du.

Artikulua desgaitasunaren eta mendekotasunaren legezko definiziotik harago doa, eta aukera zabaltzen du.

BIGARRENA: Zioen azalpena. (V. atala, 4. orrialdea) Jarraian aipatzen den paragrafoa honela idatzita geratuko da:

“Zerbitzuaren titularrak diren administrazioek, mugikortasun murriztua duten pertsonak gastu gehigarria izaten dutela jakinda –zenbaitetan lagunduta bidaiatu behar baitute–, berariazko tarifa-araubide bat ezarri dute, Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politiketako Departamentuak emandako mendekotasun-txartela duten pertsonen laguntzaileentzat, Mugi txartelarekin

Propuesta de modificación del Reglamento:

PRIMERA: Exposición de motivos. Añadir “dependencia” en párrafos 2 y 4 del apartado V pág.3

“En este sentido, el Reglamento establece que las Administraciones titulares del servicio público de transporte deben utilizar todas las herramientas a su alcance para garantizar la accesibilidad y la movilidad de las personas, garantizando, así, el uso y disfrute del servicio de transporte de forma autónoma por todas las personas y en particular por aquellas con movilidad reducida, dificultades de comunicación o cualquier otra limitación psíquica o sensorial de carácter temporal o permanente. La accesibilidad se configura como elemento clave e indispensable para la plena efectividad de los derechos de las personas con discapacidad y dependencia”.

El artículo 8 refiere una lista en la que se recogen los grupos de personas que son consideradas personas con movilidad reducida y que responde a las circunstancias personales, permanentes o temporales, de las personas usuarias a lo largo de su vida.

El artículo va más allá de la definición legal de discapacidad y dependencia y abre el abanico”.

SEGUNDA:-Exposición de motivos. (Apartado V. Página 4) El párrafo que se menciona a continuación quedaría redactado en los siguientes términos:

“Las Administraciones titulares del servicio, conscientes del gasto adicional que afrontan las personas con movilidad reducida obligadas en muchas ocasiones a viajar acompañadas, establecen un régimen tarifario específico para las personas acompañantes de las personas con tarjeta de dependencia emitida por el Departamento de Políticas Sociales de la Diputación Foral de



ERRETERIA UDALA

Trafiko, Garraioa, Hirit.Babesa eta Babes Zibila / Tráfico, Transportes, Protecc.Ciudadana y Civil

ordaintzen/baliozkotzen dutenean; eta, hala, doan bidaiatu ahal izango dute. Ekintza positibozko neurri horren bidez, garraio publikora bakarrik iristeko autonomiarik ez duten pertsonen desabantaila ekonomikoak konpentsatu nahi dira.

HIRUGARRENA.- 12., 40. eta 44. artikulua honela geratuko lirateke idatzita:

“12. Artikulua. Mugikortasun murriztua duten bidaiarien tarifa-araubidea.

Mugikortasun murriztua duten bidaiariak gainerako bidaiarien tarifa-araubide bera izango dute, bidaiari ibilgailuko zelako espazioa okupatu behar duten alde batera utzita.

Nolanahi ere, Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politiketako Departamentuak emandako mendekotasun-txartela duten pertsonak, Mugi txartelarekin ordaintzen/baliozkotzen dutenean, nahi duten beste pertsona batek lagunduta joan ahal izango dira, beraien segurtasun eta erosotasuna bermatzeko beharrezkoa den laguntza emateko gai denak; laguntzaile horrek doan bidaiatu ahal izango du, eta itsuen laguntzaile denean, ahal bada, haien ondoan eseriko da.

Hirugarren baten laguntza behar izateari buruz desadostasunak gertatuz gero, gidarien irizpidea nagusituko da “in situ”, eta, hala ere, bidaiaren zenbatekoa itzuliko da, inguruabar hori behar bezala egiaztatu eta gero.”

“40. Artikulua. Tiketa emateko betebeharra.

Garraio-enpresa eragileak behartuta daude zerbitzua eskudirutan ordaintzen duten erabiltzaileei egokia den paperezko tiketa ematera, baita doan bidaitzen duetenei ere, plazak zenbatzearen eta derrigorrezko aseguruen estaldura izatearren.

“44. artikulua. Baliozko garraio-titulua eramateko betebeharra.

Gipuzkoa, cuando paguen/validen con la tarjeta Mugi, que podrán viajar de forma gratuita. Mediante esta medida de acción positiva se pretende compensar las desventajas económicas de las personas con falta de autonomía para acceder solas al transporte público.”

TERCERA- Los artículos 12 , 40 y 44 quedarían redactados en los siguientes términos:

“Artículo 12. Régimen tarifario de las personas viajeras con movilidad reducida.

Las personas viajeras con movilidad reducida estarán sometidas al mismo régimen tarifario que el resto de las personas viajeras, con independencia del espacio del vehículo que requieran ocupar durante el transporte.

No obstante, lo anterior, las personas con tarjeta de dependencia emitida por el Departamento de Políticas Sociales de la Diputación Foral de Gipuzkoa, cuando paguen/validen con la tarjeta Mugi podrán ir acompañadas por otra persona de su elección capaz de prestarles la asistencia necesaria para garantizar su seguridad y comodidad, que será transportada de forma gratuita, y de ser viable, se sentará a su lado.

En caso de divergencia sobre la necesidad de asistencia de un tercero, prevalecerá “in situ” el criterio del personal de conducción, sin perjuicio de la devolución del importe del viaje una vez acreditada convenientemente aquella circunstancia.”

“Artículo 40. Obligación de emitir billete.

Las empresas operadoras de transportes están obligadas a la emisión del correspondiente billete en papel a las personas usuarias que abonen el servicio en efectivo, y a las que viajan de forma gratuita, a efectos de cómputo de plaza y de la cobertura de los seguros obligatorios.”

“Artículo 44. Obligación de portar el título de transporte válido.



ERRETERIA UDALA

Trafiko, Garraioa, Hirit.Babesa eta Babes Zibila / Tráfico, Transportes, Protecc.Ciudadana y Civil

Garraio-tituluak, behar bezala balidatuta, zerbitzua erabiltzea ahalbidetzen du.

Haurrek, sei urtetik aurrera, baliozko garraio-titulua izan beharko dute bidaiatzeko, behar bezala balidatua, helduen baldintza beretan, erregelamendu honetako 17. artikuluan ezarritakoari jarraituz.

Bidaiari guztiek baliozko garraio-titulu bat eduki beharko dute ibilgailuan sartzen diren unetik. Tituluaren ezaugarrien arabera, ibilgailuko sarrerako kontrolpean jarri eta gorde egin beharko dute, hondatu gabe, ibilbide osoan eta helmugako geltokian ibilgailutik irten arte, titulua erakusteko eska dezaketen garraio-enpresa eragileetako enplegatuen edo agente ikuskatzaileen eskura.

Tituluaren ezaugarriek ahalbidetzen badute bidaiari batek baino gehiagok erabiltzea, ibilgailutik irten den azken bidaiariak eduki beharko du beti titulua. Adierazitako tituluak eramailearen tituluaren izaera dute eta, hortaz, edozein pertsonak erabili ahal izango ditu.

Doan bidaiatu ahal izango dute, bakar-bakarrik, adingabeek, baimendutako pertsonak –izaera hori egiaztatzen duen agiria aldean dutela–, eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politiketako Departamentuak emandako mendekotasun-txartela duten pertsonen laguntzaileak, Mugi txartelarekin ordaintzen/baliozkotzen dutenean.

Derrigorrezkoa izango da aurreko paragrafoan adierazitako pertsonak doaneko tiket izenekoa eramatea, plazak zenbatzearen eta derrigorrezko aseguruaren estaldura izatearren.“

El título de transporte, en su caso, debidamente validado, posibilita la utilización del servicio.

Las personas a partir de los seis años de edad deberán viajar con título de transporte válido, y en su caso debidamente validado, en las mismas condiciones que las personas adultas, conforme a lo establecido en el artículo 17 del presente Reglamento.

Toda persona viajera deberá estar provista, desde el embarque, de un título de transporte válido que deberá someter al control de entrada en el vehículo, de acuerdo con sus características, y conservar, sin deteriorarlo, a disposición de los empleados de las empresas operadoras de transportes o de los agentes de inspección que puedan requerir su exhibición, durante todo el trayecto hasta descender del vehículo en la parada de destino.

En el caso de que las propias características del título permitan su uso plural, este deberá quedar siempre en posesión de la última persona que descienda del vehículo. Los referidos títulos, tienen el carácter de título al portador o portadora, por lo que pueden ser utilizados de forma indistinta por cualquier persona.

Sólo podrán viajar gratuitamente los menores, las personas autorizadas que porten el título acreditativo de esta condición y las personas acompañantes de las personas con tarjeta de dependencia emitida por el Departamento de Políticas Sociales de la Diputación Foral de Gipuzkoa, cuando paguen/validen con la tarjeta Mugi.

Será obligatorio portar el denominado billete gratuito por parte de las personas referidas en el párrafo anterior a efectos de cómputo de plazas y de la cobertura de los seguros obligatorios.“



Egiaztapen Kode Segurua/Código Seguro de Verificación: **ESKUF6333698-510f-455a-92d9-4f9e38867f7f**

Dokumentu elektronikoen honen paperezko kopiaren osotasuna eta sinadura egiaztatzeko, sar ezazu egiaztapen kode segurua egoitza elektronikokoan:

<https://uzt.gipuzkoa.eus?De=06710>

Compruebe la integridad y firma de la copia en papel de este documento electrónico, introduciendo el código seguro de verificación en la sede electrónica: <https://uzt.gipuzkoa.eus?De=06710>

Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

Titulua / Título:

2023ZUAO0003-ERABAKIA PLENO/ACUERDO PLENO (ERRENTERIAKO UDALA)